



INAZIO AGIRRE ▶ EZKER ABERTZALEKO KIDEA

«Euskal Herriaren gehiengoa erabakitzeke eskubidearen alde jarri dugu»

UNEA ▶ «Arriskuz eta aukeraz» beteta dagoela dio: «Ez gaude oraindik prozesu erabakitzailan»

AITORPENA ▶ «Euskal Herria nazioa da, eta eskubidea du bere geroa libreki erabakitzeke» ▶ 2



Inazio Arregi ezker abertzaleko kideak egungo egoera politikoaz egin du hitz. I. TERRADILLOS



IÑIGO TERRADILLOS

Euskal kultura lantzeko, jolasean jardun dute

IBARRA ▶ Euskal Jolasen Topaketa izan zen atzo Belabietan; «harremanak bultzatzeko» helburua ere bazuen ekimen horrek ▶ 6

TOLOSA ▶

Egutegia, herritarrek bidalitako argazkiekin

Guztira 300 lagunek hartu dute parte ▶ 3

LEITZA ▶

Igor Astibia atxilotu eta urtebetera, haren aldeko manifestazioa

Bihar izango da, 18:00etan, aske utz dezaten eskatzeko helburuarekin ▶ 7

UDABERRI



ESBART SANT MARTI

hitza

Azaroak 19
Beotibar pilotalekuan

Gaueko 22:30etan
Sarrera dohan

INAZIO AGIRRE ▶ EZKER ABERTZALEKO KIDEA

IMANOL GARCIA

Batasunak orain urtebete Anoetan *Orain herria, orain bakea* proposamena aurkeztu zuen. Gaur hitzaldia emango du Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak Villabonako Gurea antzokian, 19:30ean. Gai horren harira, Inazio Agirre ezker abertzaleko kide tolosarrari elkarrizketa egin dio HIRZAK, proposamenari eta gaur egungo giro politikoari buruz.

Zein balantze egiten duzue proposamena aurkeztu zenetik gaur egunera arte?

Azken urte honetan gertatutakoa oso ona izan da. Anoetan proposatutako metodologia, hau da, bi elkarrizketa-mahaien ingurukoa, bata ETA eta [Espainiako] Estatuaren artean, eta bestea alderdi politiko guztien artean; eragile politiko gehienek ontzat eman dute eta ezker abertzaleak komunikazio bide guztiak irekita ditu eragile horiekin guztiekin. Akordio sendoa lortu nahi da gatazka politikoa gainditzeko prozesua abian jarri ahal izateko. Lehentasun osoa bake prozesua abian jartzea da. Bake prozesu hori lortzeko guztiok gara beharrezkoak eta erantzukizunez jokatzeko garaia da espekulazioetan ibili gabe.

Zein da gaur egungo egoera?

Arriskuz eta aukeraz betetako unea da. Prozesua ez da oraindik abiatu, ez gaude prozesu erabakitzaile batean. Prozesua ez abiatzeko bi arrisku ikusten ditugu. Batetik, [Espainiako eta Frantziako] estatuak ez dute bide politikoaren eta demokratikoaren aldeko apustu garbirik egiten, eta hor dago Euskal Herriaren eta ezker abertzalearen aurkako bortizkeria, euskal presoen sakabanaketa, Altzagurenen eraiketa, 18/98 auzia... Beste arriskua ikusten dugu PNVren aldeetik egon daitekeen asmoa autonomia berrietzeko, baina ez konponbidea joko arau demokratikoetan lortzeko, PNVk bere interes ekonomikoak eta alderdikoiak bideratzeko baizik. Horrek erraztzen dezake, ondoren, PSOErekin lotura egitea eta autonomia berrietzea. Horrek gatazka konpondu beharrean okertu eta luzatu egingo luke. Aukeren aldetik, gauzak ondo egiten badira, jokaleku demokratiko bat eraikitzeko aukera ikusten da, Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea berreskuratzea, Nafarroako estatua konkistatu eta desegin zigutenetik ukatu digutena. Hori ez da, batzuk interesatuki dioten bezala, prezio politikoa ordaintzea, Euskal Herriaren demokrazia bideratzea baizik, eskubide guztiak denontzat Euskal Herri osoan izateko aukera bermatzea bai-



INAZIO AGIRRE

«Erabakitzeko eskubidearen alde jarri dugu Euskal Herriaren gehiengo osoa»

Inazio Agirre tolosarrak Anoetako proposamenaren ondorengo giroaz eta egungo egoeraz hitz egin du

zik. Beste kontua da norbaitek ustea demokrazia errespetatzeagatik eskerrak eman behar zaizkiola.

Eta ezker abertzaletik zer itzaropen duzue?

Nik uste itzaropenak badaudela, baina bere testuinguruan kokatuta. Nazioartean dauden esperientziei begiratuz gero, ikusten da horrelako prozesuak konplexuak eta luzeak izaten direla. Esaten da Irlandakoa 12 urtetako prozesua izan dela. Espero dugu ez dela hain luzea izango, baina usteak erdi ustel, eta gatazkatik irteteko ahalegin guztiak egin behar ditugu ezeren zain egon gabe. Horretarako denok pauso bat eman behar dugu, indarra bildu eta Euskal Herri osoa zutik jarri helburu horren atzetik. Estatuak ikusten badute herri oso bat dagoela bere eskubideen defentsan eta horren alde egiteko prest dagoela, mugitzen hasiko dira.

Beste alderdiei eta eragileei prozesu honetan zein pauso egitea eskatzen diezue?

Konponbiderako triangulazioaz hitz egiten da maiz, hau da, ezker abertzalea, PNV eta PSOE beharrezkoak direla konponbidea aurrera eramateko, konponbiderako izatez denok beharrezkoak baldin bagara ere. Gure azterketan esaten duguna da ezker abertzalearen garaipen politikoa 25 urte hauetako borrokarekin eta ahaleginarekin esparru politiko hauek agortuta daudela erakustea dela. Eta horrekin batera Euskal Herriaren gehiengo osoa erabakitzeko eskubidearen alde jartzea. Horrek aldatu du ziklo politikoa erabat, eta, horregatik, ziklo politiko berri baten atarian gaude. Horrekin batera, PSOE Madrillgo gobernura iristea posibilitoa izan daiteke, baina, oraingoz, bere horretan darrak, Euskal Herria ukatzen, Estatuak makinaria errepresiboa indarrean, eta Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta konponbide justu eta demokratikoa erabakitzeko konpromiso zehatzik ez du hartzen. PNVk az-

ken dokumentuan atera duenaren harira, balantzea ez da zuzena. PNVk ardura politiko eta instituzional nagusia izan du azken 25 urte hauetan, baina ez du inolako erantzukizunik hartzen Euskal Herriak jasane duen sufrimenduan. Hori esanda, bi arrisku nabarmen daude: batetik, azkeneko 25 urteko ziklo autonomikoa errepikatatu nahi izatea; bestetik, kontsentsu edo adostasun beharraz hitz egiten da. Denon arteko adostasuna behar da Euskal Herriari, mugarik eta bazterketarik gabe, baina beste gauza bat da Espainiako PSOE betoa edo adostasun mugatua inposatzea. Aldeko elementuak ere badaude: lurraldetasunaz hitz egiten da; Euskal Herriak duela hitza eta erabakia esaten da eta herri galdeketa ere mintzo dira. Aldeko eta kontrako puntuak ikusita ezker abertzaleak ikusten du aukera badagoela adostasuna bilatzeko eta horregatik dei egiten diogu PNVri, Euskal Herriko eragile sindikalekin

EGUNGO EGOERA

«Arriskuz eta aukeraz betetako unea da egungoa. Ez gaude oraindik prozesu erabakitzaile batean»

OINARRIAK

«Prozesu erabakitzailea izan behar duenaren oinarriak lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea dira»

eta politikoekin batera prozesu demokratiko bat abian jartzeko, inolako bazterketa politikorik gabe.

Ezker abertzaleak zein pauso egin beharko litzuke?

Ezker abertzaleak konpromisoak hartu ditu, hor dago Anoetako proposamena. Beste aldetik ikusi dugu ETAK egin dituela bere ekarpenak hori bultzatzeko. Adibidez, PPko, UPNko eta PSOEko zinegotzien aurkako ekintzak bertan behera uztea. Eta, noski, prozesu hauek kremailerak bezala dira: batek ematen du urrats bat, besteak eman behar du beste. Nazioarteko esperientziak behinik behin hori erakusten du. Horregatik, urratsak akordio sendoa egin ondoren konfiantzarekin eman behar dira eta Euskal Herriak libreaki erabakitzen duena errespetatu behar dute estatuak. Prozesu erabakitzailea izan behar duenaren oinarri sendoak jartzeko ari gara lanean eta gure ustez horiek lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea izan behar dute. Hau da, kanpoan inor utzi gabe eta bazterketa politikorik gabe Euskal Herriko herritar guztiak, herrialde denek eta aukera politiko orok prozesuan parte hartzeko eskubidea izan behar dute.

Eta aipatutako oinarri horiek ez badira akordio batean gauzatzen?

Hori ez bada lortzen prozesua ez da abiatuko. Gatazka politiko hau oinarri demokratikoetan bideratu beharra dago. Horregatik esaten dugu *eskubide guztiak denontzat Euskal Herri osoan*. Eta autodeterminazio eskubidea horietako bat da, NBEko Eskubide Zibilen eta Politikoaren Itunetako lehen artikuluan jasotzen delako. Beraz, gatazka gainditzeko Euskal Herriari jokabide demokratikoa bideratzea eskatzen dugu. Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren eskubideak errespetatzea: Euskal Herria nazioa da eta bere geroa libreaki erabakitzeko eskubidea du.

MUSIKA ▶



Zea Mays taldeko partaideek kontzertua eskainiko dute gaur, 22:30ean, Bonberenean. HITZA

Musikak ez du etenik asteburu honetan Bonbereneako taulan

Zea Mays eta Bad F-Line taldeek joko dute gaur 22:30ean; bihar, berriz, Deskontrol eta Strawberry HC ariko dira

NOELIA LATABURU

Bonberenearen seigarren urteurrena gerturatzen ari den heinean, musikak ez du etenik etxekoentzat astebururo. Horrela, gaur eta bihar bitartean ere lau musika talde ariko dira Bonbereneako taula gainean. Gaur gauean, 22:30etik aurrera, Zea Mays eta Bad F-Line euskal taldeak ariko dira beraien azken lanak aurkezten. Zea Maysen azken lana, *Sortuz*

grabitatearen aurka izenekoa, 12 kantuk osatzen dute eta taldeak helburu ezberdinak izan zituen argitaratzerakoan: taldearen heldutasuna erakustea, berea egin duten sonoritate propio baten jabe izatea eta disko argitsua egitea, besteak beste. Bad F-Line, berriz, Arrasateko taldea da, eta Rock doinu gogorak eta techno industrialaren arteko nahasketak dira bere ezaugarriak. Dagoneko bost diska kaleratu dituz-

te euren diskografia guztian zehar. Oraingoan, 2004ean argitaratutako *Gris-plata* diska-aren kantuekin datoz Bonberenean.

Biharkoan, Deskontrol eta Strawberry HC taldeak izango dira bisitari, ordu berean, haien doinuen berri emateko asmoz. Azken hori, gainera, Madrilgo (Espainia) taldea da eta DefConDos taldeko abeslari den Strawberry-ren talde paraleloa da.

GIZARTEA ▶

Kalitate «handiko» egutegia 2006 urterako

300 herritarrek bidali dituzte argazkiak; irabazleek euren sariak jaso zituzten atzo



Atzo eguerdian jakinarazi zituzten irabazleen izenak. NOELIA LATABURU

N. LATABURU

«Jendearen partaidetza» helburu zuen Tolosak 750. urteurrenean izango duen egutegiaren aurkezpena egin zuten atzo. Guztira 300 herritarrek bidali zituzten «kalitate handiko» argazkiak. Iñigo Royok epaimahai lanak burutu dituelarik. Hiru formatotan banatuko dituzte egutegiak: 2.000 eskuko, 1.000 mural eta 4.000 handi. Azalaren irabaz-


lea Miguel Cortes izan da, eta gasa eta argi kontsumoa ordaindua izatea jaso du saritzat. Tolargik bere fakturak ordainduko dizkie honakoei: Igor Garmendia, Iker Gereñu, Xabier Ubeda, Migel Uranga, Simon Arrigain eta Josetxo Gabarain. Tolosa Gasak, berriz, honakoak saritu ditu: Nerea Aizpurua, Juanma Goñi, Anjel Alonso, Markos Morales, Migel Anjel Garmendia eta Leire Arreseigor.

GIZARTEA ▶



Txapela, Otamendi anaientzat

Larunbatean Fronton kafetegiak antolatu zuen mus txapelketan Abaltzisketako Otamendi anaiak izan ziren garaile. Guztira 147 jokalarik hartu zuten parte Beotibarren eginiko V. Mus Txapelketa azkarrean. 1.200 euroko saria, txapelak, garaikurrak eta ardo kaxa bana lortu zuten irabazleek. Haien atzetik sailkatu ziren beste zazpi bikoteentzat ere sariak banatu zituzten. Argazkian, Otamendi anaiak ageri dira antolatzalearekin batera, sariak eskuetan dituztela. HITZA



ZIZURKIL ▶ KULTURA

'Larru haizetara': barre egiteko antzezlan bikaina

Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean izango da, eta ondoren Umorezko Bakarrizketen Lehiaketako Sariak banatuko dira



Larru Haizetara antzezlaneaneko une batean. HITZA

NEREA URBIZU

Oraingoan aukera paregabea izango da barre egiteko Patxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik. Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean ikusi ahal izango da *Larru Haizetara* antzezlana, bihar, 20:00etatik aurrera. Ondoren Umorezko Bakarrizketen Lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta horietako bat Zizurkilgo hobereenak jasoko du.

Agian askori ezaguna egingo zaio antzezlana, ez baita lurraldean estreinakoz eskainiko duten saioa. Ikusteko aukera izan duenak esan dezake hara joateak benetan merezi duela.

Hasiera batean bertara doanak usteko du sexuari buruzko antzerki batera doala, baina hori egileek erabiltzen duten trikimailu bat da, ez baita fun-

tsean aktoreek jorratu nahi duten gaia. Jakina da jendeari asko kostatzen zaiola etxetik ateratzea eta, are gehiago, gai serio bati buruzko zerbait ikustea edo entzutea bada. Horregatik sexuari buruzko gaiaren «aitzakia». Izan ere, pertsonaiek gai larri bat dute eskuartean: lan eskasia eta ezegonkortasuna. Argi dago hasierako gaiak ez duela zerikusirik bigarrenengo honekin, baina, esan bezala, estrategia ezin hobea da jendea etxetik mugitzea, eta badirudi beraien nahia lortzen dutela.

Antzezlanean bi pertsonak hartzen dute parte eta aipatutako bi gaiak jorratzen dituzte, trataera desberdinarekin, bertiere: lan arloarena «tonu serio» batean, eta sexuarena, al-diz, «modu fribolo» batean. Antzezlana aurrera doan heinean sexuaz gero eta gehiago hitz egingo dute, ikusleak aktoreak erabat obsesionaturik daudela konturatu arte. Subkoneszienteak traizionatuko ditu, gutxinaka, gai serioak —lan arloak— gero eta leku txikiagoa hartuz. Azkenean, haiek salatu nahi duten «gaitz» sexualaren adibiderik argiena dira.

Bi aktoreek beste muntaia bat egin zuten, *Munduko euskaldunberririk zaharrenak*, hain zuzen. Horretan arrakasta itzela izan zuten, eta honekin ez dute gutxiago espero. Hau ere Ez dok Hiru bikoteatroak aurkeztua eta ekoiztua da, eta egilea, Patxo Telleria.

Umorezko bakarrizketak

Arestian aipatu bezala, antzezlanean ondoren Umorezko Bakarrizketen Lehiaketako sariak banatuko dituzte, inguru-konpartideen artean sarituak badira eta. Lehenengo saria Rakel Rituarentzat izan zen, bigarrena Manex Munduaterentzat, eta Zizurkilgo lehenengoa Leire Zubeldia De Esteban izan zen. Hortaz, Zubeldia ikusteko aukera izango da, eta baita bere bakarrizketa entzuteko ere.

LEIRE ZUBELDIA ▶

«Tristura transmititzea errazagoa da barrea eragitea baino»

Umorezko bakarrizketa egiten duzun lehen aldia al da?

Bai, egia esan ez nuen aurkezteko asmorik, baina lagun baten animatuta egin nuen eta azken egunean eraman nuen. Lehiaketa egiten den lehen aldian da eta iaz bakarrizketak pertsonaia ezagunek egin zituzten. Izandako arrakasta ikusita aurtengoa egitea otu zizaien antolatzaileei.

Azkenean zuk aurkeztuko al duzu bakarrizketa?

Ez, han egongo naiz, baina Julen Agirrezabal izango da aurkezpene egingo duena. Bakarrizketan agertzen den pertsonaia, gainera, gizonetako da eta berak hobe egin dezake. Ez nuen espero!

Zein da erabili duzun gaia?

Zizurkilgo txikitero bat da, eta taberna guztiak ixten dituzte-

nean plazan jarraitzen du edaten. Aluzinatzen hasten denean plazan dagoen pertsonaia-ekin hasten da hizketan, eta horren inguruan doa dena.

Umorea euskaraz egitea zaila al da?

Bai, gure buruaz barre egitea errazagoa da. Tristura ematea ez da hain zaila, baina ahalegin berezia egin behar da jendeari barrea eragiteko. ◀

hilberriak eta urteurrenak ▶

I. urteurrena

Bittor**Zabala Amondarain**

Aita, gaur urtebete joan zinen gure ondotik, baina gaur ere, atzo eta bihar bezala, gurekin zaude.

Naiara eta Iraitz

TOLOSA, 2005eko azaroaren 18a



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

BALIARRAIN ▶

Jaietako batzordearen batzarrerako deia

Gaur 21:00etan bilera izango da udaletxeko kultur gelan. Bertan jorratuko diren gaiak hauek izango dira: 2005. urteko ekintzetako eta jaietako diru kontuak; oharrak jakinaraztea eta proposamenak jasotzea; urteko batzorde al-daketarako zozketa egingo dute, eta norberak leharkean gaia azter liteke.

ANOETA ▶

'Bide eginez' prozesuaren II. Batzarra

Bide eginez prozesuaren bigarren batzarra izango da bihar, udaletxean, 10:00etan. Aurrera begirako ildoak, estrategiak, eta herriko antolaketa eta ardurak jorratuko dituzte, besteak beste.

ALEGIA ▶

Kzguneko tutorearen bisita gaur arratsaldean

16:00etatik 20:00etara tutorea izango da KZgunean. *Finantza erakundeekin lan egin* I mintegia jorratuko du, 17:00etatik 19:00etara. Tutorea berri ere abenduaren 2an izango da herrian.

ALBIZTUR ▶

San Gregorio Eguna ospatzeko jai berezia

San Gregorio Eguneko ospakizunekin jarraituz, igandean 11:15ean meza nagusia ospatuko dute Albizturren, eta ondoren toka txapelketa izango da, herriko trikitilari-ek alaituta.



**DAGOENHO ABIAN DA #118. PROIEKTUA.
FRAISORO ERAIHINA ZIZURHILEN.**

Inbertsioa: 451.600 euro

Proiektu berezia pertsona berezientzat. Gure adinekoek, izan dezaketen etorkizunehi hobereana izan dezaten Aparteko Inbertsio Planaren barruan surrera doan errealitate da. Vurratandi, Tolosaño Usabel Arodegia, Leidor berria edo Rasteasuho Ispomariu proiektua bezalaxe. Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

**Aparteko Inbertsio Plana
Tolosaldean ere bai.**

Aparteko Inbertsio
Plana 2004-2007



Plan extraordinario
de Inversiones 2004-2007



Ayuntamiento de Tolosa
Diputación Foral de Gipuzkoa

BERASTEGI ▶ KULTURA

Ekitaldiz blai datozen bi asteburuetan

Gaur hasi eta hilaren 27a bitarte
Kultur Astea antolatu dute herrian

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur hasi eta hilaren 27a bitarte, hau da, datozen bi asteburuetan, Kultur Astea antolatu dute Berastegin. Udalak, Aldin kirol eta kultur elkarteak, Urepele elkarteak, Basurde elkarteak, Muñagorri guraso elkarteak eta Muñagorri herri ikas-tetxeak antolatuta, adin guztiei

zuzenduriko hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da.

Ekitaldi horien artean, Kike Amonarrizek eskainiko duen *Gazteen euskara gaur egungo Euskal Herrian* hitzaldia azpimarratu dute antolatzaileek, «oso interesgarria izango baita». Bestalde, erabilpen anitzeko gela jarri berri dutela-eta bertan euskarazko film bat

KULTUR ASTEA ▶ EGITARUA

GAUR

21:00. *Piriniotako hartza* hitzaldia Miguel Mari Elosegiren eskutik eskolako gimnasioan.

BIHAR

18:00. Futbol txapelketako finalak pilotalekuan.
22:00. Jone bakarariaren emanaldia.

ETZI

09:00. Mustar-zaharren barrena mendi ibilaldia plazatik abiatuta.

16:00. Mus txapelketa herrikoi azkarra Urepele elkartean.

OSTIRALA (AZAROAK 25)

21:00. *Gazteen euskara gaur egungo Euskal Herrian* hitzaldia Kike Amonarrizek eskutik eskolako gimnasioan.

LARUNBATA (AZAROAK 26)

17:00. *Xalto show berria* prestatzen ikuskizuna eskolako jolastokian.

Ondoren. Txokolatada.

22:00. Euskarazko filma erabilpen anitzeko gelan.

IGANDE (AZAROAK 27)

11:00. Gazta lehiaketa eta Berastegiko produktu eta eskulanak eskuragai pilotalekuan izango den azokan.

12:30. Gazta, postu eta argazki rally-ko irabazleen sari banaketa pilotalekuan.

18:00. Lehiaketan parte hartutako gazten dastaketa taloa, ardoa eta sagardoarekin.

ASTE OSOAN

Urepele elkartean ikusgai argazki rally-ko argazkiak.

ikusteko aukera izango da, baita, larunbat gauera arte ezin izango da jakin zein film izango den; sorpresa, beraz.

Aipatzekoa da, baita ere, duela gutxi Aldin elkarlekoek garbitu zuten bidean zehar,

Mustar-zaharren barrena, alegia, ibilaldia egingo dutela, herriko jendeak bide hori ezagutu dezan. Izan ere, antzina erabilpen handia zuen herritarrentzat bide horrek.

Eta horiez gain, garrantzia

handia izango du urtero izaten den eta bere baitan hainbat lehiaketa egiten dituzten azokak. Ekimen horietara nahiz besteetara joateko eta parte hartzeko gonbita luzatu diete herritarrei antolatzaileek.

IBARRA ▶ HEZKUNTZA

Harremanak bultzatu eta euskal kultura lantzea helburu duten jolasak

Ikasle ugari bildu ziren atzo Belabietan
izandako Euskal Jolasen Topaketan

I. TERRADILLOS

Jesusen Bihotza, Anoeta eta Uzturpeko ikastoletako eta Aralar eta Hirukide ikastetxeetako DBH 3ko ikaslez bete zen atzokoan Belabietako kiroldegia, izan ere, Kutxak antolaturiko Euskal Jolasen Topaketan parte hartzera deituak zeuden.

«Topaketa hauekin, ikasleen arteko harremana bultzatzea eta euskal kultura jolasen bidez lantzea dugu helburu», azaldu zuten antolatzaileek. Eta horretarako makina bat jolasetan aritu ziren: lokotxak jaso, boloak, galotxa (jolas Bretoia), sokatira, txingak, orientazio jolasa, bertsolaritza...



Ederki saiatu ziren gaztetoak sokatiran. IÑIGO TERRADILLOS



Orientazio jolasean aritu ziren. I. TERRADILLOS

hitza lagunena txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KULTURA ▶

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala, bihar

Leitzaldeko kantaririk ez da Doneztebeko finalerako sailkatu aurtengo edizioan

J. ASTIBIA

Bihar Donezteben jokatu duten Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finaleko saioan ez da Leitzaldeko ordezkaririk izan.

Duela bi aste egin zuten beren saioa Birginia eta Maddik, eta Judith eta Birginiak; hiru kantariak bi bikotetan aritu ziren kantari. Hilaren 13an egin zen bigarren saioa, eta han eman zituzten finalisten izenak. Epaileren iritzian ez dute, beraz, finalerako txartelik lortu leitzarrek: «Hurrengoan izanen da», adierazi zuten, «ederki ibili ginen, ordea», baieztatu.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ Iurreremendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA

'Igor askatu' manifestazioa bihar da

Herenegun egin zuen urtebete atxilo hartu eta leitzarra kartzeleratu zutela

JAIONE ASTIBIA

Bihar arratsaldean, 18:00etan aterako da plazatik, herriko kaleak zeharkatuko dituen manifestazioa: *Igor askatu, estatus politikoarekin euskal presoak etxera/izanen du lelo*, Etxerat elkarteak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak deitu duten ekitaldiak.

Aste honetan berean, herenegun, egin zuen urtebete Igor

Astibia leitzarra, bere Iruñeako etxean atxilo hartu zutela: 2004ko azaroaren 16an Espainiako Poliziak eraman zuen, «ETAKO kaptazio aparatuko kide izatea» leporatuta; ondorengo hiru egunetan inkomunikazio egoeran eduki eta «tortura bortitzak» eragin zizkioten, gerora berak salatu zuen moduan; eta Espainiako Auzitegiko epaile Garzonen aurretik pasatu eta deus ere onartu

ez zuen arren, espetxera sartu zuten, Soto del Realen (Espainia) aurrena eta handik egun gutxira Navalcarnerora aldatu zuten, gehiago urrunduz.

«Urtebete pasatu da Navalcarneroko espetxean bahituta dutela», diote biharko ekitaldiaren deiatzaileek HITZARA igorri zuten oharrean. Hau dela eta antolatuta omen dute manifestazioa: «Igorrek aske egon behar du: urtebete darama bahituta, besterik gabe hartu eta eraman, torturatu eta kartzelan sartu, bere kontrako deus izan gabe; hori aski ez dela, preso modura dituen eskubideak ere ukatuak ditu, Euskal Herrian egotearena kasu, 500 km-tara daukatelarik, beretzat eta bere senideentzat erantsitako zigorrak da bidean jasaten duten istripu eta heriotz arriskua; edo EPPKren kide modura Euskal Herrian beste eragile bat gehiago izateko duen eskubidearen urraketa, kasu. Horregatik diogu Igorrek libre egon behar

duela, eta, orohar, estatus politikoaren aitortzarekin, euskal preso guztiek etxera etorri behar dutela, bihar baino lehenago, orain!», adierazi zuten.

Horrela, «euskal gizartearen parte-hartzea derrigorrezkoa den heinean, Leitzako herritar guztioa ere bada», zioten eta bide horretan deialdiarekin bat egiteko eskaria egin zuten.

Auzitegira eramana berriz

Bestalde, jakin ahal izan denez, Igor Astibia berriz ere eraman zuten Espainiako Auzitegira azaroaren 4ean, «diligentziatarako» omen, oraingoan Grande-Marlaska epailearen aurrea, eta bere garaian egotzi nahi izan zizkioten akusazioen aurrean, «bai Guardia Zibilaren eskutan zegoenean eta gero Baltasar Garzonen aurrean ere egin zuen moduan, bere horretan mantendu zen Igor Astibia, alegia, ez zuen «deus» onartu, antza denez.

LEITZA ▶ BERTSOLARITZA

Xalto sariketako saioa Leitza, 3 herritarrekin

Bihar eginen dute Torrean, 19:00etan hasita, bederatzi bertsolariren parte-hartzearekin

J. ASTIBIA

Bihar ekinen diote Xalto bertsolaritzako sariketari, Leitza, Torrean eginen duten lehen saioarekin. Abenduaren 2ko finala Goizuetan izanen duen sariketa honetan lehendabiziko parte-hartzaileen artean daude, gainera, herriko hiru bertsolari ere: Diego Riaño, Miguel Mari Elosegia eta Unai Elizasu. Joseba Beltza, Oier Lakuntza, Eneko Lazkoz, Xabi Salbador, Haritz Saragueta eta Julio Soto dira besteak. Bederatzi bertsolari ariko dira kantari 19:00etatik aurrera.

Xalto, Goizuetako bertsolariren izena daraman sariketa hau Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatzen du urtero, «bertsotan hasi berriak diren bertsolari, bertso-eskoletako ikasle edota bertsotan egitea gustuko dutenei jendaurrean aritzeko aukera» eskaintzeko helburuz; «zonaldeko bertsotan aritzen direnek elkar ezagutu dezaten» ere bai; Iruñetik gora, Araitzerainokoak ariko dira eta bigarren saioan, hilaren 25ean Erratzun eginen den horretan, Baztan, Bortziri, Malerreka aldeko beste mordsoka elkartuko direlarik.

«Helburu nagusia bertsotan gozatea dugu eta jendaurrean bat-batean aritzeko errepak eragutu eta maneiatzen ikasten hastea edota jarraitzeko bidea ematea», esan dute.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Herrietako, elkarteetako, auzoko berriak, oharrak, jakinarazpenak... edota gure interesa biztu duen bestelako berriak ere hementxe zintzilika ditzakegu irakurleok. Denon artean, denontzat den egunakaria egin.

LEITZA ▶ ZINEMA

'Lilak hau dio': ikusi beharko da drama hau nolako den

J. ASTIBIA

Lilak hau dio edo *Lila dice* da asteburu honetan garuko eta etziko zine saioetarako iragarritako dagoen filma.

Ziad Doueirik zuzendu zuen hau, 2004. urtean, gidioa ere berak egina da, Chimoren nobela oinarri hartuta. Film hau Frantzia, Italia eta Erresuma Batuan errodatu zuten, errepertoan Vahina Giocante (Lila), Mohammed Khouas (Chimo), Karim Ben Haddou (Mouloud), Edmonde Franchi (izeba), Lofti Chakri (Bakary), Hamid Dkhissi (Gran Jo) eta Carmen Lebbos (Chimoren ama) aktoreek parte hartu zutelarik.

Film honek batez ere, kultura desberdinekoak bai, baina izakera desberdinekoak ere badiren hiru gazteren arteko harreman dramatikoak du kontagai: Lila, 16 urteko neskatx



Lilak hau dio-ren kartela. HITZA

ilehori polita, batez ere arabiar familiak bizi diren auzo jendetsu batean bizi den eta ero samarra den bere izebaren etxera joan da bizitzera. Bi lagun neskatxaz maitemintzen dira. Bat, istorioaren konatazailea dena, gainera, Chimo da; poetikoa, lasaia eta ederra; bestea, Mouloud, izakera harro eta oldarkorrekoa. Lilak Chimori egiten dizkio keinuak irrifar goxoaz baliatuz. Euren harremana ezkutuan mantentzen dute, Mouloudek harra-patzen dituen arte, eta bere zatia erreklamatzeko duen arte. Hortik aurrerako ondorioek Chimori hitz egiteko auzardia ematen diote. Zertaz?

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko langilea. Goizez, neska eskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tlfnoa.: 667 45 51 76 (arratsalde).

SALGAI

Autoa. Citroen Xara 1,9 diesel salgai. 2001. urtekoa. 78.500 kilometro. Egoera onean eta beti garajejan egona. Interesatuek deitu

telefono zenbaki honetara:

653 71 05 11.

Karabana. Roller karabana salgai.

Informazio gehiagorako deitu

zenbaki honetara.: 661 35 92 85.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Bizi-Nahi jubilatutako elkarteko irteera antolatuta du Almandozera (Nafarroa) hilaren 26rako. Izen-ematea, elkartean 11:00etatik 13:00etara, 25 eurotan (bazkaria barne).
Leitza. Mus txapelketa, Torrea tabernan. Gaur 22:30ean hasi, eta lau asteburutan luzatuko da. Izen-ematea, bertan.
Tolosa. Hilaren 26an Amarozen Kirol Elkartean festa izango da Ferialekuan. Afarirako izen-ematea Irabxo, Orbela eta Karlatz (Ibarra) tabernetan eta Errotabo (Amaroz) okindegian, 18 eurotan.
Tolosa. Mendi Hamabostaldia dela-eta *Al filo de lo imposible* espedizioak bere abentura proiektatuko du eta kaino jaitzieraz hitz egingo du Oargi mendiko elkartean, 20:00etan.
Tolosa. Idoia Sanchezen *Yo no soy esa* bakarrizketa saioa, Irabxo tabernan, 23:30ean.
Tolosa. Abenduaren 18an Barakaldoko BECen izango den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak salgai daude HITZAREN egoitzan, 25 eurotan; bazkariak 18 eurotan eta autobusekoak 12 eurotan.
Villabona. Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak *Orain herria, orain bakea* proposamena izango du mintzagai Gurean, 19:30ean.
Villabona. Herriko web orriak euskaratzeko diru laguntzak emango ditu Udala Euskara

Zerbitzuak. Informazioa eta izen-ematea bertan eta 943 69 35 01 zenbakian. Gaur azken eguna.
Zizurkil. Elizpe jubilatutako elkarteko gaztain jatea egingo du egoitzan, 18:00etan.

IKASTAROKAK

Aitzo. Ardo dastaketa ikastaroa, urtarrietik aurrera, zortzi astez eta 20 orduz. Izen-ematea, udaltxearen.
Irura. Ardo dastaketa, sukaldaritza hasiberrirentzat eta gozozgintza ikastaroa. Udaltxearen edo liburutegian eman izena (943 69 13 33).
Tolosa. Mulambo taldeak perkusio ikastaroa antolatuta du. Deitu 626 438373ra.
Tolosa. Munduko gastronomiei buruzko ikastaroa Kultur Etxean. 20 euro (neska-mutil bikoteek erdi prezioan).
Tolosa. Tolosaldea LHik *Acces data baseak* ikastaroa antolatuta du hilaren 21etik aurrera, doan. Izen-ematea, ikastetxean (943 651147).
Villabona. Udala Gizarte Zerbitzuak Guraso Eskola antolatuta du. Bi talde izango dira: asteazkenetan 0-10 urteko gurasoena eta ostegunetan 11 urtetik gorakoena. Izen-ematea, udal Gizarte Zerbitzuetan (943 693925), 10 eurotan.

MUSIKA

Aduna. Maelomiza saxo

laukotearen *Sax Dance* dantza eta musika ikuskizuna, Uztartza aterpetxean, 22:00etan.
Alegia. Loatzo musika eskolako ikasleen Santa Zezilia Eguneko kontzertua, Kultur Etxean, 18:30ean.
Ibarra. Mendeku itsua (Usurbil), Akatu (Iruñea) eta Khous (Berriozar) taldeak, Gaztetxean, 22:30ean.
Tolosa. Zea Mays eta Bad F-Line Bonberenean, 22:30ean.

ZINEMA

Leitza. Ziad Doueiriaren *Lila dice* filma, 22:30ean, zinema aretoan. Igandean, 19:30ean.

KIROLAK

GAUR

Areto futbol.
 ▶ Denak Pizzak-Denak Taberna (Hirugarren Maila A). 22:00, Eskolapioak.
 ▶ Zaldibi-Laskorain KE (Hirugarren Maila B). 21:30, Resti frontoia.
 ▶ Tinta Billabona-Diazabal (Senior Maila, emakumezkoak). 20:45, Olaederra.
 ▶ Tecnun-Cash Converters (Bigarren Maila). 21:30, Ingeniaritza eskola.

Pilota.

▶ Elordi-Aurrera Saiaz (Jubenilen 1. Maila). 20:30, Ikaztegieta.
 ▶ Olalde-Aurrera-Saiatz (Jubenilen 1. Maila). 19:30, Antzuola.
 ▶ Aurrera-Saiatz 1-Intxaurren (Seniorren 2. Maila). 20:15, Ibarra.
 ▶ Aurrera-Saiatz 2-Eibar (Seniorren 3. Maila). 20:15, Ibarra.

BIHAR

Areto futbol.
 ▶ Hegoalde-Deportivo Ourense

(Emakumez. Ohorezko Maila). 18:00, Usabal.
 ▶ Lauburu Ibarra-Jarrilleros. (1. Maila A). 18:30, Belabieta.
 ▶ Elorrioko-Laskorain KE (1. Maila B). 18:45, Elorrio.
 ▶ Ibarra-San Juan (Jubenilen Liga). 16:15, Belabieta kiroldegia.
 ▶ Cash Converters-Tolebe (Jubenilen Liga). 17:00, Olaederra kiroldegia.
 ▶ Trans. Lakunza-Cabo Rojo (1. Maila). 18:30, Olaederra.

Eskubaloia.

▶ Tolosa CF-Donibane (Lurraldekako 2. Maila). 18:00, Eskolapioak.
 ▶ Tolosa-Altxuri (Jubenilen Maila). 16:30, Eskolapioak.

Futbola.

▶ Hernani-Tolosa CF (Jubenilen Liga). 16:30, Zubipe.
 ▶ Danena-Euskalduna (Lurraldekako 1. Maila). 15:30, Elbarrena.
 ▶ Amaro-Intxurre (Lurraldekako 2. Maila). 12:00, Usabal.
 ▶ Amara Berri-Billabona (Jubenilen 1. Maila). 17:15, Martutene.
 ▶ Tolosa CF-Lengokoak (Jubenilen 1. Maila). 15:30, Usabal.
 ▶ Union Txiki B-Intxurre (Jubenilen 1. Maila). 11:30, Errenteria.
 ▶ Tolosa B-Ordizia B (Lurraldekako 2. Maila). 17:30, Usabal.
 ▶ Tolosa B-Aldapetarrak (Kadeteen 1. Maila). 10:30, Usabal.

Futbol 7.

▶ Itxas Lur-Caravanas Tolosa (3. Maila D). 16:00, Zarautz 1.

Saskibaloia.

▶ Tolosa Aralar-La Salle (1. Interautonomikoa).

18:00, Usabal.
 ▶ Argysan Tolosa-La Salle (Kadeteen Maila). 11:00, Usabal.

Pilota.

▶ Aurrera Saiaz-Oiarpe (Kadeteen 2. Maila). 17:30, Bidania.
 ▶ Igeldo 2-Aurrera Saiaz (Jubenilen 2. Maila). 18:30, Atano III.
 ▶ Anaitasuna-Aurrera Saiaz (Seniorren 1. Maila). 10:30, Azkoitia.
 ▶ Aurrera Saiaz 1-Illunpe 2 (Seniorren 3. Maila). 17:30, Bidania.

ETZI

Futbola.

▶ Aurrera Ondarroa-Tolosa CF (3. Maila). 17:00, Zaldupe.
 ▶ Ordizia KE-Tolosa CF (Kadeteen Ohorezko Maila). 11:00, Arizkorrieta.
 ▶ Lazkao-Billabona KE (Kadeteen 2. Maila). 11:00, Arizti Handi.

Futbol 7.

▶ Continental Industrias-Ibarrako Gazte Asanblada (1. Maila A). 10:00, Beasain 1.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa.*
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Zaharrak berri.* Hala Bedi Irratian ekoiztako saioa, Arroza Irrati Zentroaren bitartez. Elkarrizketak, iritziak, agenda...

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Gorka Zabala Luluaga (Ibarra). Gaur 3 urte. Zorionak txapeldun!

HITZA,
 zorion agurren
 tartea

Mesedez,
 argazkia bi egun
 lehenago ekarri.
 Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
 Udaltxeko bulegoa
LEITZA



jantzi
hitzaren
jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai